

Amurriotik Donostiara, ibilbide osoa aurkeztu dute.



Amurrion hasiko da 22. KORRIKA, Araban, Aiaraldea eskualdean. Gasteiztik 40 bat¹ kilometrora dago, eta Bilbotik 30 bat km-ra.

Martxoaren 31n hasiko da, eta, hamaika egunez, etenik gabe, gau eta egun, Euskal Herri osoa zeharkatuko² du KORRIKAK: Nerbioi ibaiaren haranetik³, Durango aldera joango da; eta, Anbotoko Damari⁴ agur esanda, Gasteiza abiatuko da. Itzulinguruka⁵ arituko da KORRIKA. Bidean, Euskal Herriko leku asko zeharkatuko ditu: lurralde berdeak eta basamortuak⁶; mendate⁷ aldapatsuak eta lautada⁸ ederrak; Errioxako mahastiak eta Ezpeletako piper-landareak; herrtxiki xarmagarriak⁹ eta metropolia, "Bilbo Handia". Berdin zeharkatuko ditu barnealdeko leize¹⁰ ikusgarriak eta kostaldeko itsaslabarrak¹¹. Eta, horrelaxe, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, helmugaraino; Donostiaraino, Txillardegiren sorlekuraino¹². Apirilaren 10ean, milaka euskaltzalek¹³ Donostiako kaleak hartuko ditugu, hitzez ekiteko prest!

KORRIKAREN APPA

KORRIKARI egunez egun jarraitu ahal izango diozue aplikazioarekin. Hauxe topatuko duzue: ibilbide osoaren mapa, lasterketa non dagoen, zuen herrira noiz helduko den... KORRIKARI buruzko azken orduko jakinarazpenak¹⁴ ere jaso ahal izango dituzue.

PETOAK SALGAI

KORRIKA dotore egiteko, salgai daude petoak: hiriburuetakoko dendetan, *online* eta euskaltegietan.

Hiztegitxoa:

1. bat: más o menos; *environ*
2. zeharkatu: atravesar; *traverser*
3. haran: valle: *vallée*
4. Anbotoko Dama: personaje mitológico que vive en el monte Anboto, encima de Durango; es uno de los nombres de la diosa Mari. *Personnage mythologique qui vit sur le mont Anboto, au-dessus de Durango; c'est l'un des noms de la déesse Mari.*
5. itzulinguruka: dando vueltas; *elle fera des détours*
6. basamortu: desierto; *désert*
7. Mendate: puerto de montaña; *port de montagne*
8. lautada: llanada; *plaine*
9. xarmagarri; encantador/a; *charmant*
10. leize: cueva; *gouffre*
11. itsaslabarrak: acantilados; *falaises*
12. sorleku: lugar de nacimiento; *lieu de naissance*
13. euskaltzale: personas a favor del euskara; *bascophile, défenseur de l'euskara*
14. jakinarazpen: notificación; *notification*

NONDIK NORA JOANGO DA? ZEIN ORDUTAN PASATUKO DA?

Martxoak 31

Amurrio 16:30
Balmaseda 19:23
Ugao 23:51

Apirilak 1

Durango 05:11
Legutio 14:59
Gasteiz 17:07

Apirilak 2

Agurain 00:05
Iruñea 09:18
Tafalla 20:57

Apirilak 3

Cárcar 01:39
Tutera 11:43
Zangoza 22:59

Apirilak 4

Irunberri 00:37
Donibane Garazi 14:58
Maule-Lexarre 21:26

Apirilak 5

Baigorri 03:50
Lekunberri 13:32
Lizarrar 20:53

Apirilak 6

Kanpezu 00:37
Igorre 15:12
Bilbo 19:37

Apirilak 7

Barakaldo 00:00
Bermeo 13:33
Ondarroa 22:39

Apirilak 8

Zumaia 03:08
Andoain 08:48
Beasain 19:39

Apirilak 9


Doneztebe 03:42
Kanbo 12:52
Baiona 17:29


Apirilak 10

Irun 00:54
Hernani 06:49
Donostia 07:36

1. Osatu hitzak, eta esan esaldiak egia ala gezurra diren:*Completa las palabras y dí si las frases son verdaderas o falsas:**Complétez les mots et indiquez si les phrases sont vraies ou fausses :***E G**

- 1. KORRIKA Amurrio___ Durango___ joango da.
- 2. KORRIKAn, Korrikalari___ ez dute mendaterik igoko.
- 3. KORRIKA___ kostaldea zeharkatuko du.
- 4. Balmaseda___ pozik egongo dira, zeinen ordutegi ona dute___!
- 5. Baionako___ Bilboko___ baino lehen egingo dute KORRIKA.
- 6. Baigorriko___ oso goiz jaiki beharko dute KORRIKA egiteko.
- 7. Ondarroako___ komeni zaie goiz afal___.
- 8. Beasain___ Zumaia___ baino lehen pasatuko da KORRIKA.
- 9. KORRIKA apirila___ 8___ iritsiko da Donostiara.

2. Kokatu leku hauek mapan:*Localiza en el mapa los siguientes lugares:**Localisez sur la carte les lieux suivants :***1. Abadia jauregia (Hendaia)****2. Xabierko gaztelua (Zangozako merindadea)****3. Gaztelu Zaharra (Maule-Lexarre)****4. Gaztelugatxe (Bakiotik Bermeorako bidean)****5. Ulibarri-Ganboako urtegia (Legutio ondoan)****6. Itzurun hondartza (Zumaia)****7. Erregeren Bardea (Tuteratik Cadreitarako bidean)****8. Arnagako lorategiak (Kanbo)****9. Sorginetxe trikuharria (Agurain)**



ERANTZUN ZUZENAK:

1. ARIKETA:

1. KORRIKA Amurriotik Durangora joango da. EGIA
2. KORRIKAn, Korrikalari**ek** ez dute mendaterik igoko. GEZURRA
3. KORRIK**ak** kostaldea zeharkatuko du. EGIA
4. Balmaseda**koak** pozik egongo dira, zeinen ordutegi ona duten! EGIA
5. Baionako**ek** Bilboko**ek** baino lehen egingo dute KORRIKA. GEZURRA
6. Baigorriko**ek** oso goiz jaiki beharko dute KORRIKA egiteko. EGIA
7. Ondarroako**ei** komeni zaie goiz afaltzea. EGIA
8. Beasain**dik** Zumaiat**ik** baino lehen pasatuko da KORRIKA. GEZURRA
9. KORRIKA apirilaren 8an iritsiko da Donostiara. GEZURRA

2. ARIKETA:

1-!; 2-d; 3-e; 4-f; 5-a; 6-g; 7-c; 8-h; 9-b

KORRIKA APLIKAZIOA

► **KORRIKA aplikazioa deskargatzeko / para descargar la aplicación KORRIKA:**

iPhone: <https://apps.apple.com/es/app/korrika/id594215660>

Android: <https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.korrika>

► **Ibilbidea Interneten ikusteko / para ver el recorrido en Internet:**

<https://korrika.eus/eu/ibilbidea>

MINTZAMENA

- **Prestatu gaia tutore edo ikaskideei azaltzeko:** ezagutzen dituzu irudietan agertu diren lekuak? Azken edizioan egin al zenuen KORRIKA? Nondik nora? Eta aurten, nondik nora joateko asmoa daukazu? **Prepara el tema:** *¿Conoces los lugares que aparecen en las fotos? ¿Participaste en la última edición de la KORRIKA? ¿De dónde a dónde? ¿Y este año, tienes intención de participar? ¿De dónde a dónde?*